


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZAR

380n. zenbakia • 2012 martxo



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org



Anaren oroimenez

Zergaitik diñoe Everest
zirkua billakutzen ari dala?

Urteroko Batzar Nagusia



Basenai

Euskalerrian euskeraz EUSKERA ZALEAK

2011-2012 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 44. IKASTAROA IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 10an

44. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 10 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitabost euro) kontu onetan:

EUSKERA ZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzar Nagusia

Martiaren 29. egunean
EUSKERAZALEAK alkarteak urteroko
Batzar Nagusia egingo dau
Lenengo deia: 19:00etan eta
Bigarren deia 19:30 etan

GAIAK

Aurkespena : Zuzendariak
Urteko kontuak: Diruzaiñak
Urteko ekintzak: Zuzendariak
Batzordekide barriak, balegoz
Erreguak eta eskariak

ZUZENDARIAK

Asamblea General Anual


El 29 de Marzo celebrará la Asociación
EUSKERAZALEAK su Asamblea General
anual

Primera convocatoria 19:00 tarde
Segunda convocatoria 19:30 tarde

ORDEN DEL DIA:

Presentación : El Presidente
Cuentas anuales: La Tesorera
Actividades anuales: El Presidente
Nuevos miembros de la Junta si hubiere
Ruegos y preguntas

EL PRESIDENTE



Aitorren kondaira

Iritzan Aitor Sortaldetikan
bere zazpi semeekaz
Añamendiraiño,
eta bere inguruko lurraldeak
begiratu ebazan:

Egoaldean, Ebro ibaia emonkorra
Iparraldean, neurrigabeko zelayak,
baso ostotxuak ta ibar naspilduak
Sortaldean eta aien atzean, itsasoa.
Eta Aitorren semeak antxe bertan
geratu ziran bizi izateko
zazpi leiñu leenak sortzen.

Ezkutatu eban Aitorrek
ordu an altxor bat leize
baten sokonagonean,
iñoiz ez, norik ez ebastu zezan.

Eta au irauntzen da,
mendietan ezkututa,
aitalenaren isilekoa.

Bere emaitza.
Orrela jaio zan erri bat,
euskotarrena.

Aitorren semeak.

Agustin Arrien

olerkia



“AGUR, URIARTE ta EUBA´tar ANA!!”

Montorra auzunea, Garai baserria, Anaren jaio-etxea

AURKEZPENA:

1.948an Irailla´ren 11n Zornotzako errian, Montorrako auzunean erre egin zan Garai baserrian jaio zan gure Euskal Nortasunezko Euskerazale Uriarte ta Euba´tar Ana agurgarri au.

Beren lenengo ikasketaren urratsak, Montorrako auzunean egon zan erriko eskolan emon ebazan.

7 urte euki ebazanean, Zornotzara beratu zan, eta Karmeldar lekaimeak daukien ikastetxean sartuta, bertan egon zan beren bigarren maillako ikasketak amaitu arte.

Bere aditze edo ulermenean, ez zan naikoa karmeldar lekaimearen ikastetxean ikasi ebenakaz, berak beren baitan ulertzen eban ogi bidearen lanetan ezartzeko, eta lasterrezko idazketak⁽¹⁾, ta kondularitzaren⁽²⁾ ikasbideko arloekin Bilbaora joanda arduratu zan, bide batez ingelez izkuntza be ikasten asita.

1.964ko urtean 15 urte eukezala, Bilbaoko Edesaren lantegian asi zan lan egiten, eta bertan bete ebazan beren lenengo urte-baterdiko lanak.

(1) *laster-idazketak = taquigrafia.* (2) *kondugintza edo kondularitza = contabilidad empresarial.*

1.965 eko Azaroan 17 urte eukezala, Zornotzaren “Forjas de Amorebieta”ko burni-lantegian sartu zan lan egitera, eta bertan egon zan 1.967ko Urtarrillararte.

1.967an berak “Forjas de Amorebieta”ko lantegian bear egin baiño zeozer geigo gure eban, eta Ingalaterrara joan zan “au-pair”⁽³⁾ edo ume-zain sari ordezt, Bilbaon asi ebazan ingeles izkuntzaren ikasketak ulermenezko zentzuan ezartzeko, eta bide batez erreztasuna emon, mintzo-egikuntzari.

Ingalaterran egoala, Paris be ikusi bear ebela ta, alan egin eban itzuraldi edo ta iges-aldi labur baten.

1.968an Eibarren egiten egon zan Arantzazuren kateko ostal-etxean lan egiteko euki eban ille biko elkargo bat eskuan, ostal-etxe ori zoritxarrez baiña, amaituten egon zanean jausi zan, eta ezereztu jakon ostatu arloetan egiten joan zan lan-saioa.

1.970eko Urrillan, Zornotzako karmeldar lekaima ikastetxean asi zan ingeles irakasle, eta bertan bete ebazan urte bi.

1.971ko urtean, karmeldarren ikastetxeko irakas lanaren urte bi orren bitartean, Zornotza ’ko Astobiza ta Zamalloa ’tar Juanekin ezkondu zan, eta euskal kabi eder bat osotzeko bidean, urte barru orreitan Aitor semea euki eban, 1.973ko Urrillan Igor, 1.974ko Abenduan Amaia, eta 1.979ko Bagillan Jokin.

1.976aren urte orduko, karmeldar lekaidearen Karmeloko ikastetxean asi zan ostera andereño lez, eta bertan egon zan 1.985eko urterarte.

1.985eko urtetik 1.992ko urterarte, Zornotzako Andra Mari ikastolan egin eban lan andereño lez. Eta Urte orrein bitartean, Zornotzako Mendibil ’tar Gregorio.

Kalean ipini eban Ikas-gela bat, ingeles, lantokiko kondu-liburuak, eta lanerako naikide⁽¹⁾ edo leikideari prestakuntzazko ikasketak emoteko. Geroago, bere seme/alabak be euren ikastetetan ondo atondu edo adelatuta, irakatsi orreik emon ebezan, euren amak ipinitako ikastoki gela orreitan.



Ez zan geldirik geratu billakuntzazko antolagailluak⁽²⁾ agertu ziranean, eta ikas-gela ori antolagailluz bete eban, emoten ebazan ikasketak antolagaillu orrein bidez emoteko, eta ainbat Zornotza eta karpoko gazte artu dabez irakaspen orreik, bera il dan arte.

Zekula ez eban euki ezetik lan egiteko, eta gitxiago ikastera urbiltzen jakozenai ezetz bategaz edo ta arrokeriz artzeko, bere izaeran danak artzen ebazalako “Zer beardozu” eskeintzaren berba adoretzuzko⁽³⁾ itaunagaz.

Jende guztia, nai zarra edo ta gazte izan arren, danak artzen ebazan begirunez edo lotsakortasun audienean, gazteari beti aukera emonda euren nortasunezko askatasunean agertu egiezen.

Ona emen gaur, gure gazteak nun daukien eredu bikaiñ bat, euren izatasunaren gertuetarako ikas bitetik, bizitzan zor-eskubidearen ordeztoko lan ekin tzak egin bear dabezan ekanduzko mailla andian, Jainkoa ta euskalerritari buruz egin bear dabezan alegiñ onenean eskeintzeko.

NIREKIN ALKARTZEA:

Euskerazaintza ’n eta Euskerazale ’en elkartetan Ana ’rekin kidetasunezko arreman sakonak euki orduko, Zornontzako erriaren senditasunezkoak izanda edo ta auzotasunezkoak izan da, ondo esagutu nebazan beren etxeakoak, batez be bere aita

(3) Frantzez izkuntzan, “au-pair” = ume zain esangura dau. (1) Lan naikiderako = oposiciones pa los puestos de trabajo. (2) Billakuntzazko antolagailluak = aparatos ordenadoren de, o para la informacion. (3) Adoretzuzko berbea = palabra de animo, o, animoso. (4) Bigiran = tertulia.

Uriarte´tar Pedro, nire osaba Agirre´tar Gergorio´kin euki eban adiskidatasun sendo bidetik, sarritan alkar ikusi ta bigiran⁽⁴⁾ egoten giñelako.

Bai bere ama Euba´tar Puri ta Uriarte´tar Juan Pedro beren neba.

Eta bai 1.965´eko urtetan “Zornotzako Forjasen” Ana beragaz alkar lan egiten gendunetik be, naita beragaz nik ezeren artu emonik euki gabe, bera luma langille ta ni burdiñaren arloko langintza ezberdiñetan ibili giñelako.

Ni Lourdesegaz ezkondu eta gure alabak, Ana eta bere senar Juanenak baiño zaarragoak izan, eta mailla ezberdiñetan ibili arren, ikastolan batera ibili genduzan gure seme-alabak, ikastolaren arduratan eta gurasoen zeregiñakaz batera.

Baiña nire Euskerazale ta Euskerazaintzako idazlanak antolagailluarekin erreztutako alegiñean asi arte, eneban benetako Ana ezagutu, ikasteko eta euki nebazan arazotik askatzeko beti prest egon zalako, eta ainbat mesede egin euskun Olazar´tar Martin eta niri arlo orretan, gure Euskeraren aldeko erakundeetan kide izan orduko.

EUSKERAZAINTZA ta EUSKERAZALEAK ELKARTEAREN KIDE:

Beragaz antolagailluaren inguruan sarri ta denbora asko emoten gendun, eta bera Zornotzako euskal alaba arduradun lez, Euskalerrri ta Euskal-sendiaren menpeko giroagaitik minduta, bere “BARNEKO-BAITA”n, ardura andietan sartuta egonda,

Euskerazaleak eta euskerazaintzan egiten gendun lanagaitik, zirikigarrizko itaun sakonak egiten eustazan

-Beste gauza batzuen artean nigaz solas-aldiko berbaldietan egoten zanean, berak, ezkertir eritzikoa zala esaten eustan.

-Nik alderantziz, gure Euskalerrrian ez zala egon bear ezker-eskubi alderdikorik, esaten neutson.

-Gure Euskalerrri maitagarri onetan bere barneko Jendekuntzan, “Askatasunezko Demokraziaren Jabeduna izan ezker” ez dagoelako Nortasunaren izatasunezko errikoitasun orreitan zentzunezko lekurik iñungo alderdikierientzat, bere seme/alaba guztiak batera lan egin bear dabelako euren buru edo eta euskal elburuari begira, gorputz bat dalako.

-Euskaldun guztiak “Askatasunezko Erria izateko Elburuagaz”, iñori ta iñora begitu barik alkar bateratuta lan egin bear dogu, gure arbasoaren ondorengotik, bereztasunean egiturazko gizon/emakume itxura ona ekarriz gaiñ, barnetik jazteko, Askatasunezko Demokraziaren Oitura Ederrak emon dauskuelako.

Eta ezker eskubitar alderdikierizko lokatz orretan sartuta egoten bagara, espainiar ta Europaren mendeko batzangotzaille alegin bidetik sartzen dauskuelako da, ortik agertzen jakuzelako daukaguzan menperatasunezko arazo baragarri orreik.

Solasbide ortatik, ainbat adierazpeneko alkar izketa eder euki genduzan aldikada baten Ana´k eta ni´k, antolagailluaren gora beran, beragana itaunka joan bear izaten nebanean.



GURE ANA KEMENTSUAREN EUSKAL- ARDURA SAKONAK.

Antolagalluaren gora beran beragana joan bear izan neban egun baten.

- Ana 'k: Pablo, zelango lana egiten dozue erakunde lez Euskerazaintza ta Euskerazalearen eginkizunetan?.

- Nik: Illero batzartzen gara Kolon de Larreategin 14n zenbakiko 2n solairuan.

Euskerazaleak Alkartean emoten diran euskerazko ikasketak aurrera erodateko.

Illeroko "ZER" aldizkaria argitaratzeko bear daunagaz arduratzeko.

Euskal Astean emoten diran itzaldiak antolatzeko.

Egutegi-Takoa argitaratzeko bear dauazan lanagaz arduratu.

Euskerazaintza Euskeraren erri akademiko erakunde lez, sei illabeteko epean agertzen doguzan Bizkaieraz idatzitako aldizkari bien lanakaz arduratzeko.

Diru arloan laguntzazko eskaerak bear dabezan ardurazko antolaketak egin, eta Olazar ta Uribe 'tar Martin apaizaren zuzendaritzapean erabagi, eta abar.

Kontuan euki bear dozu, aldizkari ta Egutegi-Tako orreik bakarrik idazten dirala bizkaieraz gure Euskalerriko lurralde oneitan.

- Urrengo egun baten Ana 'k: Zu Pablo, eta lan guzti orreik aldizkari orreitan bakarrik itzi barik, zergaitik ez ote dozue interneten sartzen?.

- Nik: Zulako batzarkide bat euki ezkerro bai. Etorriko ziñake?.

Eta Martin 'eri be antolagailluagaz euki ebazan jakinezko utsunetan aolkularitzan eta konponketetan ainbat bider laguntzen egonda, alango baten gure euskerea erabiltearen Euskerazale ta Euskerazaintza erakundeekin kidetu zan.

2.004ko Urtarrillan agertzen da Ana gure batzarreko agirietan.

Eta Jokin bere semea, ariñautik ama 'ri lagunduten ibilita, 2.008an Uztailla 'ren 10ean oizko batzarrean, eta maikide lez 2.009an Epailla 'ren 26ko agirietan.

Gero, Donostin barik, Bilbon ipini zalako batzarlekua eta Murua 'tar Joxe Mari ta Arzelus 'tar Amale adiñetan sartuz, Joxe Mari 'rentzat arazo andiko biurtuta berak zeatz eta ardura andiz eroaten ebezan Euskerazaintza erakundearen garrantzi andiko diru kontu ta lan orreik Jaurlaritzan aurkezteko, bertan itzi bear izanda, Ana arduratu zan lan guzti orrekin.

(1) Zurztasunean = orfandad.



Ortik aurrera bere seme/alabaren laguntasunagaz, ikaragarritzko lanak egin euskuzan Ana 'k interneteko arloetan.

- Euskerazaleak Alkartearen aldetik interneten:

- Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Zubikarai 'tar Augustin, Latiegi 'tar Bizentek egin ebazan "Denbora Zarretako Euskal-Eleizaren Edestia" ren kondairazko bederatz liburu ta abar, Elbire Zipitria, Zubiri 'tar Iñaki, Josu Peña, Olazar 'tar Martin, Paulin Solozabal, Joseba Iker Laka Goenaga, Ikas Iztegia, Zer aldizkariaren ale guztiak, eta urteroko Egutegi-Takoa.

- Euskerazaintzaren aldizkari guztiak interneten sartuz gain:

- Kardaberaz bilduma osoa, Arrindatar Anastasio, "LATXAGA" San Sebastia 'tar Jose Marik egin euskun euskerazko lan guztiak, "UMANDI" Urretarazu 'tar Andoni 'ren Asmo iztegia, Gabirel Menterola 'ren lanak amaitu barik geratu arren, Ana 'ren seme/alabak bitartez amaitzeko itxaropenean gertzen garan, "200.000tik gora" ikusle daukazan Ana 'k interneten eginiko ikaragarritzko lan bikaiñ onetan.

Zelan beteko ote dogu, Ana 'k itxi dauskun utsune?.

A ta guzti badakit nik, ANA 'k, JAINKOA 'ren ZERUTIK gure zurztasunean⁽¹⁾ lagundu be egingo dauskula, "EUSKERAZAINTZA eta EUSKERAZALE" aren egin bearrak aurrera eroan dagiguzan.

Ainbat zor dautzagu Ana 'ri Euskerazale ta Euskerazaintzakoak erakunde lez, eta EUSKALERRIAK ABERRI LEZ batez be.

"AGUR!!"

"EGUN AUNDIRARTE"

Atutxa 'tar Paul

Zornotza 'n 2012'an Urtarrilla 'ren 29'an



Zergaitik diñoe Everest zirkua billakatzen ari dala?

Artikulu onek sentiberatasunari min egin dagokezan irudi eta kontuak dituela oartarazten da. Orrelango arriskurik nai ezean, ez jarraitu irakurtzen.

Artikulu onen sorrera zenbaitetan entzundako esaldi onek eztenkatua da: “Everest zirkua biurtzen ari da”. Mendizale ospetsuek esana, oien artean Edmund Hillaryk, mendi ori ofizialki igon eban lena. Beste batzuk be esan dabe, esate baterako Juanito Oiarzabalek, zortzimillakoak igotzen munduko errekorra daukan pertsonai xelebrea, orain artean 23 igon baiditu, orreitako bitan emen aipatutako mendi gaillurra. Gaiñera, 7.000 metro gaiñeko mendietan ezagutza daben beste batzuk ezagutzen doguzanez beraien-gandik len eskuko informaziñoa jaso al izan dogu.

Everest, munduko gaillurrik gorena, itsasmallatik 8.848 metro gorakoa, Nepal eta Txinak bereganatutako Tibet arteko ipar-mendebaldeko muga dago kokatua. Everest gallurrari ekiteko bidexka asko urratu dira, oikoenak Nepaletik doazen egoaldeko lerroak dira, errezenak direlako. Bestalde Tibet-etik datozen iparraldeko lerroak dagoz.. Danak dabe antzeko zerbait; 8.000 metrotik gora “eremu illa” deritzoena zearkatu bear izatea.


Everest-en arriskuak; eremu illa, mendiko gaitza, izozteak eta pitzadurak

Eremu illa gune bat da non airean dan oxigeno kopurua ez da naiko bizi aukerak bideratzeko. 5.000 metro tara dagoen be kanpamentuan arnas daiteken oxigenoa itsasmallakoaren erdia da, eta gallurrean erena.

Oxigeno urritasunagatik 2.400 metrotik gora asten da “**mendiko gaitza**” jasateko arriskua. Asierako sintomak biaramon bortitz edota gripe baten antzekoak dira. Zeluletan oxigenoa barriztatzeko almena gitxituten danez, gorputzaren oñarrizko funtziñoak gitxituten asten dira eta zera sortzen da: nasmen-dua, sentitzeko eta autemateko almena gitxitutea, burukomiña, urdallekoa, zorabioa eta nekea. Guzti orrein eragiñez edema sortzen da, biriketako eunetan edo burmüñean likidoak bilduz, eta orrek eriotza ekartzen dau.

Ipoxiak, oxigeno eza, asierean **lillurabideak edo euforia** sortu daike, norbanakoa orretaz konturatzen

eztala. Medikuen esanetara Everest-eko eremu illan sintomak asten direnetik mendizaleak almen oneko minutu 1 edo 2 ditu egoera zuzentzeko. Goi mendietako adituek diñudie txarrera aldaera 20-25 minututan egiten dala. Argazkian, Marco Epis-ek mendiko gaitza jasan eta Sergey Kofanov-en taldea artatzen ari jako;



Ekiditeko eskalatzaleek **girora egokitze**aldiak ematen dituez, gallurrera igo aurretik goi altueran egun edo aste batzuk igaroz. Orrela globulu gorrien kopurua areagotuten dabe, odolean dagon oxigenoa garraiatu al dagien. 8.000 metrotik gora ezinezkoa da girora egokitzea. Oxigenoak ezin dau gastatzen daukan guztia birsortu eta ordeko oxígeno barik gorputza pixkanaka makaltzen asten da atzera buelta barik geratu arte.

Mendiko gaitzaz gain, Everest-eko muturreko klima arrisku bizia da izozte eta ipotermia iraunkorra jasateko. Egoera txarreko aize monzoniko bortitzak orduko 285 kilometroko abiadura izan daikie. Otz andienak Urtarrillean dira. Gallurrean otza bataz beste 36 gradu zero azpikoa izaten da, naiz eta bat-batean zero azpiko 60 gradura jaitsi daiteken. Eguraldi beroena Uztallean da, 19 gradu zero azpikoa.

Beste arrisku bildurgarria lur zoruan izotz geruza autsiak eta edurragaitik ezkutaturik geratzen diran pitzadura ezkutak dira. Everest mendiak gune geien eta eriotza istripu geien sortzen dituen be kanpamentuko irterean dago, izotz ormaguneko edur jausia zearkatzean. Gorago be badira beste ainbat.

Pasang Lhamu sherpa anderea bere senarrarekin jaistean oietako batetik desagertu zen.

Ustiapen turistikoa Everest-en

Everest gallurrera iristeak mota desbardineta pertsonaiak erakartzen ditu, eskalatzaille profesional zein goi mendian eskarmentu bakoak. Baita une batean Everest-era igotzea asmozat artu dabenak.


Igotzeko erronka **oiko biurtu da enpresari eta goi kargudun artean**, bizitzaren une batean zera diñoenak “enpresa edo beargin pila bateko sailla zuzentzeko gauza dan ni lango bat ez ote da munduko gallurrera elduko eta an argazki batzuk egin bulegoan ipinteko, bezero ta langileak txundituz”.

Eskalatzaille profesionalen artean oiko da **zentzu andirik bako markaren bat lortzea**: oxigeno barik bi aldeetatik igotze len gizona ala emakumea izatea, ariñago igon eta jaitsi dana izatea, gallurrera aldi geienetan igon dana, edo gaztena ala zarrena, len itsu edo begibakarra, edo beste edozein ezintasuna dauena, era berezi batean nazio bateko lena, snowboard egiñez jaisten lena...

Everest gallurrera igotzeko be kanpamentutik asten da eta bidean zenbait kanpamentu igarotzen dira, gallurrera daukien urruntasunaren arabera zenbatuak; kanpamentu 1, 2, 3, 4... kopurua aukeratutako bide-lerroaren arabera aldatzen da. Orreitan kanpandak finkatzen dira, igoera zein jaitsierarako bearezko diran osagaiekin ornituz. Ia 3 illabeteko lana.


Igoera eta kanpamentuen antolaketa diruaren, kontratatu dan bidaia eta taldearen irizpideen izaten da. Irudian egoaldeko bide-lerroa; eremu illa 4. kanpamentutik urterean asten da.

Igoera baimenagaitik Nepal-eko gobernua 25.000\$ kobratzen dau norbanako bakoitzeko, eta orretaz gain eskalatzalleak taldeka ala norbanako gisa antolatzen dira. Mendi onetan diarduten trek-



king enpresak kontratatu daitezke, bakoitza bere zerbitzu desbardinekaz, zamaketari asko ala gitxi alokatu, kanpamentuetan osagai eta larrialdietarako orniketa asko ala gitxi itxi daiteke, be kanpamentuan larrialdirako adi dan erreskate taldea kontratatu daiteke... edo igandekari gisa joan, osagaietan eta trekking agentzietan gitxieta gastatuz.

Everest gallurrean inork ez dau bidea galtzen. Bide-lerro oikoenetatik arkaitz batetik igotzen da, bertako soka gidatzalleari jarraituz. Soka bidetik zoaz, ala maldan bera amildu zaitezke andik urten eziñik geratuz. Teknikoki ez dau zailtasunik orma txiki batzuk eskalatu bear badira be: egoaldeko bide-lerrotik orma bat, eta iparraldekotik bi "step" edo mallak deitua direnak. Argazkian, egoaldeko bide-lerroak daukien arkaitzaren azken zatia.



Dana dala, eremu illera eldu orduko -lenago be baliteke- eskalatzallea bizia arrisku larrian ipinten dau, mendiko gaitzagaitik, izozte edo pitzaduren-gaitik txarto gelditzen bada ... eta bere gisa mugitu eziñean geratuz ezker oso zaila suertatuko iako inolako erreskaterik lortzea.

Lurrera jauzi eta bere kabuz altxa eziñean geratu ezker, ezinekoa da beste eskalatzalleek arrastaka eremu illetik ataratea. Orretan saiatuko balira euren biziak arriskuan ipiñiko leukiez. Altuera orretan emondako urrats bakoitzeko mendizale prestu batek iru asperen bear ditu, mugitu barik be biotzaren abiadura anditzen dalako oxigenoa azkarrago edatzearen, gero eta gitxiago daukalako eta gorputza muga-mugan doalako gañean daroazan arropa, oxigeno ontziak eta botiken zamagaitik. Irudian, iparraldeko bide-lerroa;

Erreskatetan ez da elikopterorik erabilten, geienak altuera orreitarra igoteko gai ez direlako. Everest gallurrera igotzea lortu dauen elikoptero bakarra



Eurocopter AS350 izan da, 2005 urtean. Gallurrean minutu batzutan egonkor aritzea lortu eban. Ez zan lurrean egonkortu edurrean ondoratuko zalako, eta motorra itzali barik ibilli zen. Elikopteroz babilzko erreskate batean, emaitza aize bortitzek baretzearen mende egongo liteke, ibilgallua egonkor ibilliz mendizalea soka batez lotzeko aukera izango leukelako.

Ikuspegi ekonomikotik **elikopteroaren kostua itzela liteke**. Ez baidira komertzialki ekoizten, zerbitzu zibil edo militarrentzat altuera orreitan erabilten ez direlako. Ez liteke jasangarria izango orrelako elikopteroak be kanpamentuan eukitea, zeren mantentzeaz gain altuera orretara iraunkorki egokitutako pilotu eta mekanikoak

bearko litekezelako. Argazkian, 2003. urtean be kanpamentuan lur artzera ioiala istripua izandako elikoptero errusiarra. 9 bidaiarietatik 2 il ziran.

Eskalatzalle bat mendiko gaitzagatik jagi eziñean geratzen bada, **laguntza mediku oso mugatua** jaso daike: oxigenoa emotea, esteroides edema arintzeko, eta adrenalina suspergarri gisa. Urtenbide eraginkor bakarra jatzitea liteke, gitxienez 2. kanpamenturaino.

Gañera, **eremu illean egon daiteken denbora mugatua da oxigenoa urria dalako**. Beraz, gaixotuak ez badau altxatzea lortzen eskalatzalle kideak derrigorrezko aurkituko dabe an bertan iztea beraiek jaitsi al izateko.



Everest zirku gisa

Eremu illean gaixotua mugitzen saiatzea ezinezko suertatzen da dakarren arriskua andiagaitik. Era berean ildakoak mugitzen astea, ezta pentsatu be. Norbait iltzen danean gorpua jauzitako lekuan lagatzen da eta otzaren bitartez **izoztua geratzen da** iltzeko unean eban keñu eta kokaera bardiñean. Ezarrita baegoan, ezarrita. Olan geratu zan Peter Boardman, 1982 urtean iparraldeko mendebalde bide-lerro sallean saioa egiten ebillela. 10 urte geroago ezarrita aurkitu eben, lo balego legez.

Kalkuluen arabera Everest-erako bidean 200 eskalatzalletik gora il dira. Euretatik 150 ez dira sekulan agertu, **baña bidea ageriko illotzez josita dago** -40tik gora-. Jauzi ziren toki berean dgozanez gora doazen eskalatzailleak albotik pasatzen dira eta bakoitzari izena jartzen deutsoe, bidean esangarri jakiezan aipamen-izenakin.



Ezagunena eta aurkitzen dan lenetarikoa “**agurtzalea**” da. Orrelan izendatu eben badirudilako illotz izoztua besoekin agurtzen ari dela. Ziurtasunik barrik be, kokaeragatik esan daiteke beko au dela.

Bigarren illotz ezagunena “**bota berdekikoa**” da, oñetakoen fosforito kolore nabarmenagatik. “Bota berdekikoa” Tsewang Paljor da, 1996 urteko Maiazaren 11an otzez ildako aguazil indiarra. Urte ori mendiaren istorian latzena da. Paljor-ek beste poli-

ziakidekin gora ioianean aizete gogorra jasan eban. Sei taldekidek saioa itxi eta bera egin eben. Paljor-ek aurrera egin eban beste kide biekin.

Illotza geroago “aitzeko kobazuloa” deritzon gunean etzanda aurkitu eben. Toki ori koba baño gallurretik 450 metro berako arri zuloa da, 4. kanpamentutik 250 metro gora. Illotza ospetsu egin zan egoaldeko bide-lerroa egiten dabenen artean, argazkian ageri diren soka-lerroak jarraituz metro batera igaro bear dabelako, gorpua ia ekidin beharrez.

“**1996ko ondamendia**” eguraldi aldaketa trinko batek sortu eban eta egun bakarrean 15 ildako izan ziran. Ezbear orreik kalapita sortu eben Everest inguruan mugitzen dan ustiapen komertzialaz. Egun berean 33 mendizalek ekin eutsoen egoaldeko bide-lerrotik, ia danak batera, alabearrez eskalatu bear dan “Hillary Step” arkaitz-orman Everest-eko “overbooking” efektua sortuz, igotzalle geiegi ziralako eta gida-soketan arazoak sortu ziralako.





Gallurrera egoaldetik igotzeko gauerdiz abiatzen da 4. kanpamentutik eta 10-12 ordu bear dira gelditzen diran 1.000 metro egiteko. **Arratsaldeko ordu-biak artzen da gallurrera iristeko azken garaia legez.** Beranduago eldu ezkerro gaueko otzaz ilda geratzeko arriskua dago edo jaisterakoan egaleko mazelatik jauztearena. Kontutan izan bear da istripu geienak jaitsiera orretan gertatzen direla.

96ko ondamendian “step” malletan izandako mendizale betekadak, beragaz ekarri eban batzuk gallurrera iruretan edo lauretan eldutea. Beranduegi. Iruretan **ikuskeragoxitu egin zan aizete bortitza** altxatu zalako eta jatsierean eskalatzaille askori 4. kanpamenturako bidea aurkitzea ezineko jakienetz otzik il egin ziren. Gauetz eta urrengo eguneko

erreskate saioek soilik 4 pertsona bizirik aurkitzea lortu eban. Jolas-parkea badirudiarren, ara emen 2009ko espedizio bat Everest-eko gallurrera egoaldeko bide-lerrotik illaran igotzen.

Bota berdekikoaren alboan **David Sharp** gertatu zan, alpinisten artean lotsagarrikeria eta sumindura andiena sortutako kasua. Agian Everest inguruan eraiki dan zirkuaren adibide onena da. David Sharp matematika irakasle zan eta 2006ko Maiatzaren 15ean gallurrera irugarren saioa egitekoa zan. Asian Trekking bitartez beko kanpamendura elduteagaitik 6.200\$ ordaindu eban, eta andik aurrera saio batzuk bakar-bakarrik egin ebazan, oxigeno barik, sherpa eta gidarik bage, irratia barik, botika edo beste bizigarri barik. Ain zuzen igandekari gisa eukanarekin gora egiten eban, bear bada markaren bat lortzekotan.

Ez da ezagutzen laurak ostean gallurrera eldu ote zen. Gauza da berako bidean, arratsaldeko azken orduan gaixotu egin zela eta **indarrak berreskuratze**ko bota berdekiko alboan ezarri zela. Illotz baten alboan ezarteak dituen zantzu txarragatik egoera latza izango zan, ze gerora jakin zan une oro argi ebala pixkanakako eriotzan egoala eta bestea legez amaituko ebala. Bitartean eskalatzailleak bere aurretik igarotzen ziren laguntzera geratu barik.

David Sharp albotik **40 eskalatzalle inguru** pasa zi-





ran, iñor gelditu barik. Goizeko ordu-batean Mark Inglis-ek zuzendutako Brice espedizioa eldu zan. Mark Inglis goi mendian aditua zen eta 1982 urtean bi anak izoztu eta galdu bazitun be une orretan Everest-era protesi metalikoekin gora ioian. Ezkerrean David Sharp eta eskuman Mark Inglis;

Artean Sharp-ek arnasa eban eta Inglis-ek beko kanpamentuko zuzendari Russell Brice-ri irratiz argibideak eskatu eutsozan. Russellek **gallurreraiño jarraitzeko eskatu eutson**, eta laguntza emotekotan gero jaitsieran izan edilla. Gertaera onek Everest inguruan kritika zabalduen jasotzen daben jokaera adierazten dau: eskalatzalleen jokabidea al dauenak al dauena egitea dala, soilik taldeko edo interes komertzialei erreparatuz. Bezero batek gidaria eta sherpak kontratatzean gallurrera igotzeko ordaintzen dautsie, ez beste pertsonak erreskatatzeko. Gañera gidariak ez dabe beti erabakiak artzeko eskumenik. Zenbaitetan, kasu onetan legez, kanpamentuan talde zuzendaria egon daiteke istripua

izandakoak laguntzera ez geratzeko eta gailurrera jarraitzeko aginduak emoten.

Bederatzi ordu geroago Jamie McGuinness gidaria eta Sherpa Dawa gaillurra zapaldu ondoren izoztengatik erabat larri zen Sharp altxatzen alegindu ziran. Oxigenoa emon eutsoen, baña ezin izan eben suspertu. Bertan itxi eta jaitsi egin ziren. Brice espedizioako kideek buru-babeserako kaskoetan bideo-kamerak eroazanez Sharp-ekin il aurretik izandako elkarrizketa laburra grabatuta geratu zen; “David Sharp da nire izena eta Asian Trekking-ekoekin nabil bidaia egiten”.

Bi eguneko eriotza

Bestela pentsa daitekenarren, Everest-en gertatutako eriotzak ez dira alabearrez azkarrak. Kasu baikoitzaren arabera da eriotzaren luzaera. Igoera saio geienak eguraldi onarekin egiten dira eta eskalatzalleak otzaren aurka babesturik igotzen dira. Eguraldia ez bada bat-batean aldatzen, iltzen diren

eskalatzalleak oxigeno ezagatik eta izozte geldoagatik eriotza luzea jasaten dabe. Egun batzuetako eriotza izan daiteke.

Otza tupustean areagotzen bada ipotermiak eragindako eriotza oso ordu gitxitan gerta daiteke.

Francys Arsentiev oxigeno barik gallurra zapaldu-tako len emakumea izan nai eban. Irugarren saioan, 1998ko Maiatzaren 22an lortu eban, ordu berantiarrean, bere senar Sergei Arsentiev-ekin batera. Abiatu aurretik 8 urteko semetxuari arrisku artan aurrera egiteko baimena eskatu eutsan. Jaitsieran oartu bage bikotea bananduta geratu zen gau illunean. Kanpamentura eltzean jakin eban Sergeik emaztea oraindik eldu bage zala. Oxigeno botillak artu eta bere billa igon zan. Erabaki arek, ziur aski ipoxiak eragindako euforiaz artua, muturreko arriskuan jarri eban.

23ko goizean espedizio uzbeko batek Francys gallurretik metro gitxira aurkitu eban, ia konorte barik eta izozte ezaugarriekin. Al eban oxigenoa emon ondoren, arrastaka mugitzen saiatu ziran

baña ezinezko suertatu iakienez bertan itxi eban. Kanpamentutik gertu ziranean, erreskaterra gora bidean ioian Sergei topatu eban. Orduan ikusi eban azken aldiz bizirik.

Urrengo egunean, 24ko goizean, eskalatzalle bi egoafrikar aditu, Ian Woodall eta Cathy O'Dowd, uzbekoek itxitako leku berean aurkitu eban Francys lurrean itxunda. Sergei-ren pioleta eta soka urrean baziran, bere arrastorik ez. Hegoafrikarrak beingoan alboratu eban gora ekiteko asmoa. Ezkerrean Arsentiev eta eskuman Cathy O'Dowd;

Cathy O'Dowd-ek kontatu eban Francys-ek bein eta barrero negar artean eskatzen eutsela bakarrik ez iztea. Ordubeteko laguntza emon ondoren eta emaitzarik lortu barik, Cathy eta Ian-ek alabearrez bertan itxi eban. Alderatzen ziran bitartean bere zotiñak entzuten zituzten. Azken berbak latzak izango ziran. Francys bakardadean eta astiro il zan, izozte geldoan. Ez zan ipoxiaz il, uzbekoek eta egoafrikarrek emondako oxigenoari esker. Orregatik bere eriotza luze bezain mingarria izan zan. Sergei





urtebete geroago aurkitu eben “Mallory and Irvine” espedizioak. Espedizio orren elburua eskalatzalle bi ezagun orrein illotzak aurkitzea zan. Sergei maldan bera jauzita egoan bere emaztea egoan metro gitxitatik amildua.

Cathy O’Dowd-ek antzeko gertaera bat bizia eban aurretik. Len igoeratik jaisten ebillela Bruce Herrod topatu eban. Eskalatzalle orrek igoeran trebea izatearen ospea eban: oso astiro igoten zan. Berarekin itz egitean, Cathy-ren taldekideek konturatu ziran ez egoala bere onean eta beranduegi zala gora igoten jarraitzeko. Baña ezin izan eben Herrod

konbentzitu saioa albora egian, ipoxiak eragindako euforian egoan da..

Herrod-ek gallurra arratsaldeko 5etan zapaldu eban, Bertan argazkia atara, eta irratiz kanpamentura deitzean ango guztiak –bere emaztea barne– eskatu eutsoen atoaan jaitsi zedilla, arrisku bizi-an egoalako. Argazkia atera ostean ordu bira desagertu zan. Gerora soñean eroian kamera berreskuratu al izan zan eta emazteak argazkia errebelatu. Biziarekin ordaindutako argazkia.

Ara emen Everest-en gertatzen dan beste oiko kasua. Bat algutzidun sentitzen

bada eta saioa laga bear dauela onartzen ez badau, **alperrikako da itzultzeko aginduak emotea.** Ezin daiteke 8.000 metrotan eztabaidan asi.

Lincoln Hall-en kasua benetan arrigarria da. Prentsa britaniarrak Everest-eko **il biziduna** izendatu eben.

2006ko Maiatzaren 25ean gallurretik jaisten ari zala mendiko gaitza sortu jakon eta lillurabide trinkoan sartu zan. Edur ekaitza baten erdian sherpak laguntzen saiatu ziran, baliabiderik geratu arte. Taldeko zuzendari Alexander Abramov-ek Hall itxi egiera eta itzultzea agindu eutsen. Kanpamentura eltzean prentsari mendizalearen eriotzaren albistea emoten ebiltzan.



Dana dala, urrengo eguneko goizeko 7etan, Dan Mazur-ek zuzendutako espedizio estatubatuarrek Hall aurkitu eben 8.700 metroko altueran. Ezarritaa egoan belauak gurutzatuta, eskularru barik, galtzaman-tala gerriraño jatsita eta gorputz enborra agirian. **Atorra aldatzen ebillan.** Ez eban gañean ez burukorik, ez betaurrekorik, ez oxigeno arnagallurik, ez lozakurik, ez manta, ez urontzirik. Bertaratu ziranean zera esan eutsen: “arrituko zarie emen aurkitzea”. Mazur-ek Hall-i argazki au egin eutson gaillurretik urbil. Lilluratuta, irribarrez egoan naiz anka eta eskuetak atzamar guztiak galtzeko aukeran egon.

Mazur-ek saio eten eta bereala erreskate lanak asi zituan. Abramov-ek 12 sherpa bidali ebazan, estatubatuar 4 taldekideekin alkartzeko. Lincoln kanpamenturairiño oñez jaistea lortu eben. An buruko edemaz artatu eta bere onera itzuli zan.

Gorpuak ez dira edurrean estalita gelditzen.

Zigur naikoz azalpen zientifikorik izan daiken arrazoi batengatik, Everest-eko bizkarguneetan geratutako gorpuak ez dira edurrez estaliak geldituten. Amarkadatan ikusgarri irauten dabe. Bear

bada aizete andiek gañean jausitako edurra mugitzen dabe eta elurra ez da finkatuten. Edo, arropen kolore illunek argitasuna erakartzen dabe, eta orren ondorioz sortutako berotasunak edurra finkatutea ezinduten dau.

Aizetearen eragiñez Everest-eko lepo bat edur barik geldituten da. da, arkaitzaren azal baltza agirian itxiaz.. Sinesgaitza badirudi be, emen agertzen den illotza 3. kanpamentu erdian dago. Alpinistek euren kanpadendak ikusmira orren alboan ipinten dabez.

2007 urtean Ian Woodall-ek “Everest-eko Tao” espedizioa gauzatu eban. Francys Arsentiev eta Green Boots-en illotzak maldan bera bultzatu nai ebezan, mendiari kharma ona itzultzeko. Soilik Arsentiev-ena aurkitu eben eta ziur aski Woodall-en egitasmoak zentzuren bat izango eban, baña ausarkeri itzela da bizia arriskatzea zer eta illotza bera bultzatzeko. Aldi berean itxurakeria be bada, mendiaren garraztasuna zuritu nai dalako. Ustiapen komertzialak eragindako kalteak azal ustu nai dira.



Patxi Otamendik euskeratua.



Euskaldun barrientzat

Zazpi utsak

Ikasten



ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar
..... kalean (auzoan)..... zenbakian
..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN “ZER”. Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Billboko Alhondiga

Egoak ebaki banizkio
nerea izango zen,
ez zuen aldegingo.

Bainan, onela
ez zen geiago txoria izango
eta nik...

txoria nuen maite.

Mikel Laboa